

Ordiziako Udala

2022IOSB0009

Ordizian, **2022ko urriaren 13a** UDALBATZARRAK Aparteko eta presazko batzarra egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

*En Ordizia siendo el día **13 de octubre de 2022 se reúne en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial el AYUNTAMIENTO PLENO EN Sesión etxordinaria y urgente con la asistencia de las siguientes personas:***

LEHENDAKARIA:

Adur Ezenarro Agirre jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:


Maitane Alvarez Garciandia	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Jon Ander Caballero Zubelzu	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Ainhoa Jimenez Goñi	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Jesus M.Lariz Orbezabal	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Itsaso Muñoz Rodriguez	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ-PNV
Arantxa Arocena Gomez	EAJ-PNV
Joseba Aranburu Ganzarain	EAJ-PNV
Xabier Crespo Ibarrolaburu	EAJ-PNV
Agurtzane Antoñana Arizmendi	EAJ-PNV
Miren Alazne Sukia Galparsoro	ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak)
Juan Ignacio Alonso Arratibel	ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak)
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE (PSOE)

IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

Jose Miguel Santamaria	EAJ-PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ-PNV
Lander Mujika Onandia	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)

IDAZKARIA:

Ainhoa Esnaola Zubeldia



Ordiziako Udala

2022IOSB0009

BESTE BERTARATZE ETA IRTEERAK:

Idoia Yarza Amantegi (Udaleko diruzaina)

AZTERTUTAKO GAIAK:

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

1.- 2023ko ekitaldian aplikagarriak izango diren Ordenantza Fiskalak behin-behineko izaerarekin onartzea.

2.- Ordizia Lantzen S.A.k Ordiziako Udalari egindako mailegu izaerako ekarpen eskaeraren onarpena eta hau finantzatzeko kreditu aldaketaren onarpena.

1.- Aprobar con carácter provisional las Ordenanzas Fiscales para su aplicación en el ejercicio del 2023.


2.- Aprobar la solicitud de aportación a modo de préstamo formulada por Ordizia Lantzen S.A. al Ayuntamiento de Ordizia y aprobación de la modificación de crédito para su financiación.

GORABEHERAK:

ORDUTEGIA:

HASIERA: 18:00etan.

AMAIERA: 20:00etan.



Ordiziako Udala

2022IOSB0009

Bilerari hasiera eman aurretik, ez-ohiko eta presazko izaera bozkatu da.

Bozketa:

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 14 (EUSKAL HERRIA BILDU (E.H. Bildu) 6, EAJ/PNV 5, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

Abierta la sesión por parte del Presidente, se da lectura al primer punto del orden del día.

1.- 2023ko ekitaldian aplikagarriak izango diren Ordenantza Fiskalak behin-behineko izaerarekin onartzea.

1.- Aprobar con carácter provisional las Ordenanzas Fiscales para su aplicación en el ejercicio del 2023.

PROPOSAMENA - PROPUESTA

GAIA: 2023ko Ordenantza Fiskalen Onarpena

ASUNTO: 2023ko Ordenantza Fiskalen Onarpena

ORDENANTZA FISKALAK 2023

ORDENANZAS FISCALES 2023

Alkate jaunak aurkeztu du 2023rako udal tasa eta zergei buruzko proposamena. Beti ere 11/1989 Foru Arauak (uztailaren 5ekoa, Gipuzkoako Herri- Ogasunak arautzen dituen), ezarritakoa betetze aldera, honako hau erabakitzea proposatzen da:

A la vista de la propuesta presentada por el Alcalde relativa a los impuestos y tasas municipales para el 2023, en cumplimiento de lo dispuesto en la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, se propone la adopción del siguiente:

PROIEKTUAREN AKORDIOA


PROYECTO DE ACUERDO

LEHENENGOA: Honako hau onartu behin-behineko izaerarekin 2023eko ekitaldian aplikatzeko.

PRIMERO: *Aprobar con carácter provisional para su aplicación en el ejercicio del 2023, lo siguiente:*

ZUZENBIDE PUBLIKOKO UDAL ZERGEN ETA BESTE DIRU-SARREREN GESTIONAREN, BILKETAREN ETA IKUSKAPENAREN GAINEKO

ORDENANZA GENERAL DE GESTION, RECAUDACION E INSPECCION DE LOS TRIBUTOS Y OTROS INGRESOS DE DERECHO PUBLICO LOCALES.




ORDENANTZA NAGUSIA.

1. 31. Art. Egutegi fiskala eta salbuespen eta hobariak eskatzeko epeak onartzea
 2. 33. Art. – Ordaintzeko moduak eta ordainketarako lekuak onartzea
 3. Zuzendu: epe exekutiboa hastean 5%eko erreargua aplikatuko da eta ez %10eko testu osoko hainbat artikulutan zehazten den bezala.
 4. 76.5 Art. – Eraginkortasun eta ekonomia irizpideak direla eta, 10 Euro baino gutxiagoko likidazioen salbuespena onartzea.
 5. 109. Art. Ordainketa zatikatuko sistema berezia. aldizkako mugaeguna eta jakinarazpen kolektiboa duten ordainagirientzat.
1. *Art. 31 – Aprobar el calendario fiscal 2023 y los periodos de solicitud de exenciones y bonificaciones.*
 2. *Art. 33 – Aprobar los modos de ingreso y los lugares de pago*
 3. *Corregir que una vez iniciado el periodo ejecutivo se aplicará un recargo del 5% (y no del 10% que se cita en diferentes artículos de la ordenanza)*
 4. *Art.76.5 – Aprobar por criterios de eficiencia y economía la exención de liquidaciones que no superen 10 euros.*
 5. *Art. 109 – Aprobar un Sistema especial de pago fraccionado para recibos de vencimiento periódico y notificación colectiva*

1. ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA, ONDASUN HIGIEZINEN GAINEN ZERGA ARAUTZENDUENA.

1-LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL Nº 1, REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES EN EL MUNICIPIO.

- 12/1989 Foru Arauaren erreferentziak txertatzea.
- Etxebizitza hutsaren erreargua ez aplikatzeko arrazoiak
 - b), c) eta d) atalak aldatzea
 - e), f) eta g) atalak txertatzea
- Hobariak orokorrean:
 - eskaera epea aldatzea (luzatzeko)
- Familia ugarien hobaria:
 - Seme-alaba kopuruan zegoen akatsa zuzentzeko aldaketa
 - Baldintzak aldatzea eta NISAEren elkarreragintasan nodoan kontsultak egiteari uko ez egitea.
- *Incluir referencias normativas de la NF12/1989*
- *Causas de no aplicación recargo vivienda vacía:*
 - *modificar apartado b), c) y d)*
 - *incluir supuestos e), f) y g)*
- *Bonificaciones en general*
 - modificar (ampliar) plazo solicitud*
- *Bonificación familia numerosa:*
 - modificar errata tabla (nº hijos/ingresos)*
 - modificar requisitos e incluir clausula no oposición a consulta nodo interoperabilidad NISAE.*



Ordiziako Udala

2022IOSB0009

- Energia berriztagarrien hobaria:
-Aurkeztu behar den dokumentazioa aldatzea (zehaztea)

- *Bonificación energías renovables:*
-modificar (detallar) documentación a presentar

Podemos Ordizia Ahal dugu taldearen proposamena 3. artikulua 4. atala aldatzeko etxebizitza errekararen atal berri bat txertatzeko %150koa jabeago handientzat.

Propuesta de Podemos Ordizia Ahal Dugu de modificación del punto 4 del artículo 3 para incorporar un recargo del 150% para grandes tenedores.

2. ORDENANTZA FISKALA, UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.

2. LA ORDENANZA Nº 2, REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE ACTIVIDADES ECONÓMICAS EN EL MUNICIPIO.

- Hobariak orokorrean:
- Araudira egokitzea enpresa berriak sortzeagatik hobaria.
- Enpleguak sortzeagatik hobaria kentzea.
- II Eranskina: kokapenari dagokion koefizientea txertatzea.


- *Bonificaciones:*
-Adecuación a la normativa de la bonificación por creación de nuevas empresas
-Anulación de la bonificación por creación de empleo.
- *Anexo II: inclusión nuevo índice de situación.*

3. ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA, TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.

3. LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL Nº 3, REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE VEHÍCULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA.

- 12/1989 Foru Arauaren erreferentziak txertatzea.
- **Salbuespenak:**
-Eskera epea aldatzea
-Baldintzak aldatzea eta NISAEren elkarreragintasan nodoan kontsultak egiteari uko ez egitea.
- Hobariak orokorrean:
-eskaera epea aldatzea (luzatzeko)
-baldintzak aldatzea (zorrak, errolda) eta baldintzak aldatzea eta NISAEren elkarreragintasan nodoan kontsultak egiteari uko ez egitea

- *Incluir referencias normativas de la NF14/1989*
- *Exenciones:*
-modificar plazo solicitud
-modificar requisitos e incluir clausula no oposición a consulta nodo interoperabilidad NISAE.
- *Bonificaciones en general*
-modificar (ampliar) plazo solicitud
-modificar requisitos (deudas, padrón...) e incluir clausula no oposición a consulta nodo interoperabilidad NISAE.



Ordiziako Udala

2022IOSB0009

- Familia ugarien hobaria:
-taularen izendapena aldatzea (seme-alaba kopuruak / diru-sarrerak)
- Ibilgailu elektriko (hibrido, edo gas) hobaria
-hobaria lortzeko epemuga aldatzea
- *Bonificación familia numerosa:
-modificar nomenclatura tabla (nº hijos/ingresos)*
- *Bonificación vehículos eléctricos híbridos gas
-modificar periodo máximo bonificable*

4. ORDENANTZA FISKALA, ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.

- Bateratu irekiera berriagatik emandako hobariak

PSE-EE PSOE Ordizia taldearen proposamena 8. artikuluan Foru Araua literalki txertatzeko erabakia osoko bilkurarena dela jasotzeko.

PSE-EE PSOE Ordizia taldearen proposamena EIT (Eraikuntzen Ikuskapen Teknikoa) txostenetik eratorritako lanentzat hobariak ezatzeko.

PSE-EE PSOE Ordizia taldearen proposamena eraginkortasun energetikoa hobetzeko hobariak ezartzeko.

Alkatearen proposamena eraginkortasun energetiko hobetzeko eraberritzeetan hobariak ezartzeko.

4. LA ORDENANZA FISCAL Nº 4, REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS.

- *Agrupar la bonificación por nueva apertura.*

Propuesta del grupo PSE-EE PSOE Ordizia para insertar en el artículo 8 el texto íntegro de la Norma Foral recogiendo que la decisión es del pleno.

Propuesta del grupo PSE-EE PSOE Ordizia para establecer bonificaciones a los trabajos que se deriven del informe de la ITE (Inspección Técnica de los Edificios).

Propuesta del grupo PSE-EE PSOE Ordizia para establecer bonificaciones a los trabajos de mejora de la eficiencia energética.

Propuesta de alcaldía para las bonificaciones para la rehabilitación energética de los edificios.

5. ORDENANZA FISKALA, HIRI-LURREK IRABAZITAKO BALIOAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.


- 0 eta 6 urte arteko eskualdaketen zerga tipoa aldatzea

5. LA ORDENANZA FISCAL Nº 5, REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE EL INCREMENTO DEL VALOR DE LOS TERRENOS DE NATURALEZA URBANA.

- *Modificar el tipo de gravamen para las transmisiones de 0 a 6 años*

6. ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA,

6. LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA



Ordiziako Udala

2022IOSB0009

ZERBITZU ESKAINTZEAGATIK ADMINISTRAZIO EGITEAGATIKO DITUENA. PUBLIKOAK ETA EKINTZAK ARAUTZEN TASAK. FISCAL Nº 6, REGULADORA DE LAS TASAS POR PRESTACIÓN DE SERVICIOS PÚBLICOS Y REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES ADMINISTRATIVAS.


- 2/1990 Fako arau-erreferentziak sartzea
- Covid neurriak indargabetzea
- Eranskina: Hondakinen tasa:
 - Tarifak % 5 igotzea
 - Sei hilean behingo kuotak
 - Etxebizitza eta jarduerarik gabeko lokalaren tarifa bateratzea
 - % 100eko hobaria sartzea gaitasun ekonomikoagatik: epeak, baldintzak eta NISAEren Elkarreragintasan nodoan kontsultak egiteari ez uko egitea.
- Tasa izaera dela eta, haur-eskolako zerbitzua emateagatik tasa 6. ordenantza fiskalera aldatzea.
- Interesdunei Ordiziako Udaleko langile izateko hautaprobak egiteko beharrezko zerbitzuak emateagatik tasa berriaren ezarpena eta eskakizuna onartzea:
 - tasa onartzea
 - enplegu-eskatzailleentzako hobaria onartzea.
- Incluir referencias normativas de la NF2/1990 y modificar el articulado
- Dejar sin efecto las medidas Covid.
- Anexo: Tasa residuos:
 - Incremento del 5% en las tarifas
 - Cuotas semestrales
 - Unificar tarifa vivienda y local sin actividad
 - Incluir bonificación del 100% por capacidad económica: plazos, requisitos y clausula no oposición a consultas en nodo Interoperabilidad NISAE
- Debido a su carácter de tasa, trasladar la tasa por la prestación del servicio de la escuela infantil a la ordenanza fiscal nº 6
- Aprobar la imposición y exigencia de la nueva tasa por la prestación a las personas interesadas de los servicios necesarios para la realización de pruebas selectivas de acceso a la condición de personal del ayuntamiento de Ordizia:
 - aprobar la tasa
 - aprobar la bonificación a demandantes de empleo.

Podemos Ordizia Ahal dugu taldearen proposamena haur eskolako tasak aldatzeko.

Propuesta de Podemos Ordizia Ahal Dugu de modificación de las tasas de la escuela infantil.

7.ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA, ERABILERA PRIBATIBOKO EDO HERRIKO JABETZA PUBLIKOA MODU BEREZIAN APROBETXATZEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUENA.

7. LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL Nº 7, REGULADORA DE LAS TASAS POR LA UTILIZACIÓN PRIVATIVA O EL APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL DOMINIO PÚBLICO LOCAL.



Ordiziako Udala

2022IOSB0009

- Covid neurriak indarrrik gabe uztea
- Saltokietatik kanpoko produktuen esposizioagatiko tasen kasuan, hiru hilean behin kobratzeko aldizkakotasuna aldatzea.
- Azoketako eta festetako postuak: kontzeptuak argitzea eta akatsak zuzentzea
- Bide publikoaren okupazioa:
 - Terrazak: tarifa 3-4 aulkira egokitzea
 - Barraka eta ferientzat tarifak onartzea, baita ez aplikatzeko baldintzak zehaztea ere.
 - Aplikazio arauak eta kaleen eranskina: auzoetako terrazetan hobaridun tarifaren aplikazio-eremua argitzea.
- *Dejar sin efecto las medidas Covid*
- *Modificar la periodicidad de cobro de trimestral a anual para las tasas por exposición de productos fuera de comercios*
- *Puestos en ferias y festejos: aclaración conceptos y corrección erratas*
- *Ocupación vía pública:*
 - Terrazas: adecuar tarifa a 3-4 sillas
 - Incluir barracas y ferias y condiciones para la no aplicación de las tarifas
 - Normas aplicación y Anexo calles: aclaración de la zona de aplicación de la tarifa bonificada terrazas barrios.

8. ORDENANTZA FISKALA, HAUR ESKOLAREN UDAL ZERBITZUAGATIKO TASA ARAUTZEN DUENA.

1- Prezio Publikoen Arau Orokorrak onartzea

2 – Eranskina: Etxez-etxeko zerbitzuaren prezio publikoa onartzea (aurrez erregelamendu bidez zehaztua)

PSE-EE PSOE Ordizia taldearen proposamena etxez-etxeko zerbitzuaren tasa aldatzeko.

BIGARRENA: Ordenantza jendaurrera jarri Iragarki-Taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 30 egunetan, eta Korporazioak erabakiko dituen erreklamazio eta iradokizunetarako interesa dutenei aukera eman. Erreklamaziorik ez balego, behin betirako onartutzat joko dira Ordenantzak, erabaki gehiagoren beharrik gabe.

8. LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL Nº 8, REGULADORA DE LOS PRECIOS PUBLICOS.

1- *Aprobar las normas de aplicación de los Precios Públicos*

2- *Anexo: Aprobar los precios del servicio de Ayuda domiciliaria*

Propuesta del grupo PSE-EE PSOE Ordizia para modificar la tasa por servicio de asistencia domiciliaria.

SEGUNDO: *Someter la modificación de las Ordenanza Fiscales a información pública mediante anuncios en el Tablón de anuncios y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa por un plazo de 30 días, dando audiencia a los interesados para la presentación de reclamaciones y sugerencias que serán resueltas por la Corporación. En el supuesto de que no*



hubiera reclamaciones, se considerarán las Ordenanzas aprobadas definitivamente sin necesidad de nuevo acuerdo.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate Jauna: gai-ordenarekin batera bidali zaizue Ordenantza fiskalen onarpen proposamena gidoi gisa jarraitzeko. Ordenantza orokorra dago eta gero zortzi ordenantza. Ordenantza bakoitzean proposatzen diren aldaketak aritu gara zehazten, batik bat, gero onartze prozesua errazteko.

Ikusiko dugu zein kasutan Ordenantza osoa bozkatu dezakegun eta desadostasunik egongo balitz, puntuz puntu joango gara bozkatzeko. Zentzu horretan, bidali zaizuen proposamen hori aldatu egin da, izan ere, txertatu ditugu Elkarrekin Podemos eta PSOEek egindako proposamenak.

Proposamen horiek Ordenantza espezifiko bakoitzari dagozkionez, dagokion zatian txertatu ditugu.

Gaur talde sozialistak sartu duen proposamena teknikoki aztertzen egon gara, bai idazkariarekin eta diruzainarekin, hobari batzuen inguruan eta ikusita nolabaiteko kontraesana zegoela foru arauan jasotakoarekin, hori gainditzeko beste proposamen bat aurkeztu dugu.

Prozedura aldetik hori azalduta, adierazi nahi dut proposatzen den Ordenantzen aldaketa oro har izoztea dela, baina badago salbuespen bat, hondakinen bilketaren tasari dagokiona eta bertan %5eko igoera planteatzen da.

Debate

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:


Sr. Alcalde: *junto con el orden del día se os ha remitido la propuesta de aprobación de las Ordenanzas fiscales para seguirla como guión. Hay una ordenanza general y luego ocho ordenanzas. Se han ido concretando las modificaciones que se proponen en cada ordenanza, sobre todo para facilitar el proceso de aprobación posterior.*

Veremos en qué casos podemos votar toda la Ordenanza y si hubiera discrepancias iremos votando punto por punto. En este sentido, se ha modificado la propuesta que se os ha remitido, ya que se han incorporado las propuestas de Elkarrekin Podemos y PSOE.

En cuanto a las propuestas correspondientes a cada Ordenanza específica, las hemos incluido en la parte correspondiente.

Hoy hemos estado analizado técnicamente la propuesta que ha introducido el grupo socialista, tanto con la secretaria y la tesorera, sobre unas bonificaciones y viendo que había cierta contradicción con lo recogido en la norma foral, presentamos otra propuesta que lo posibilite.

Expuesto esto procedimentalmente, quiero señalar que la modificación de las Ordenanzas que se propone en general es una congelación, pero hay una excepción, la correspondiente a la tasa de recogida de residuos, en la que se plantea un incremento del 5%.



Ordiziako Udala

2022IOSB0009

Izozte horren zergatia hurrengoa litzateke: egun badakigu zein den egoera KPlari dagokionez eta orokorrean bizi dugun egoerari dagokionez, eta denak gerria estutzen gabiltzan honetan, bai proposatzen dugu Udalak ere gerria estutzea, izozketa proposatzea baina kontziente izanda, izozketa honek eragina daukala udalaren dirusarreretan. Beraz, batetik izozten da herritarren karga arintzeko, baina honek ekarriko du era berean udalak bere gerrikoa ere ondo estutzea, sarrerak bere horretan mantentzea eta aurrekontuen lanketan esfortzu berezia egin behar izatea.

El motivo de esta congelación sería que hoy en día sabemos cuál es la situación en relación al IPC y a la situación que estamos viviendo en general, y ahora que todos estamos apretándonos el cinturón, sí proponemos que el Ayuntamiento también lo apriete, proponga la congelación pero siendo conscientes de que esta congelación afecta a los ingresos municipales. Por lo tanto, se congela por un lado para aliviar la carga de la población, pero esto también va a suponer que el ayuntamiento se apriete bien su cinturón, mantenga las entradas intactas y tenga que hacer un esfuerzo especial en la elaboración de los presupuestos.

Hondakinen tasa igotzearen zergatia hurrengoa da: herritarrek ordaintzen duten tasak ez du estaltzen Sasietak kobratzen duen zerbitzua eta %18 azpitik gaude gastu hori estaltzeko. Orain bertan, izoztearekin, Udalak 150 mila inguruko zuloa estali beharko luke eta zulo hori beste dirusarreretatik estaltzen da, beraz, %5eko igoera horrekin 105era murrizten da zuloa eta gutxienez arindu egiten da.

El porqué de la subida de la tasa de residuos es el siguiente: la tasa que pagan los ciudadanos no cubre el servicio que cobra Sasieta y estamos un 18% por debajo para cubrir ese gasto. Ahora mismo, con la congelación, el Ayuntamiento debería tapar un agujero de unos 150 mil euros y ese agujero se cubre con otros ingresos, por lo que con ese incremento del 5% el agujero se reduce al 105 y al menos se aligera.

Beraz, ordenantzaz ordenantza azaltzen joango gara eta proposatzen diren aldaketak aztertzen eta bozkatzeko.

Por lo tanto, iremos explicando ordenanza por ordenanza y analizando y votando las modificaciones que se propongan.

Lehenengo Ordenantza Ordenantza Orokorra da.


La primera Ordenanza es la Ordenanza General.

Alkate Jaunak Ordenantza Orokorreko aldaketa nagusiak zein diren azaldu ditu eta jarraian, bozketara pasa da puntua.

El Sr. Alcalde explica cuáles son las principales modificaciones de la Ordenanza General y a continuación pasa a votación.

Iñaki Dubreuil zinegotziak puntuz puntu bozkatzeko eskaera egin du eta lehenengo puntua azpi-puntuetan bozkatu da.

El concejal Iñaki Dubreuil solicita votar punto por punto y el primer punto se vota en subpuntos



Ordiziako Udala

2022IOSB0009

Mila Sukia: nik era berean, zalantza bat daukat. Hirugarren puntuan zergatik pasatzen da %10etik %5era?

Mila Sukia: Yo, a su vez, tengo una duda. ¿Por qué en el tercer punto se pasa del 10% al 5%?

Diruzaina: Foru Arauak horrela dioelako eta hemen jaso gabe dagoelako.

Tesorera: Porque así lo dice la Norma Foral y aquí no está recogido.

Bozketa:

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 14 (EUSKAL HERRIA BILDU (E.H. Bildu) 6, EAJ/PNV 5, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak Ordenantza Orokorraren aldaketari dagozkion puntu guztiak aho batez onartutzat jo ditu.

Jarraian alkate jaunak bigarren puntua azaldu du

Seguidamente el Sr. Alcalde expone el segundo punto

Alkate Jauna: hurrengo Ordenantza Ondasun Higiezinaren gaineko zergari dagokiona da. Zerga honetan planteatzen diren aldaketak, batetik, foru arauaren erreferentziak txertatzea izan da; bestetik, etxebizitza hutsen errekarua ez aplikatzeko kasu gehiago sartu dira. Ordenantzari jasota zeuden batzuk baina ez gehiegi eta aplikazioan, ondo jaso gabe egonda, arazoak ekartzen zituen.


Sr. Alcalde: La siguiente Ordenanza es la correspondiente al Impuesto sobre Bienes Inmuebles. Las modificaciones que se plantean en este impuesto han consistido, por un lado, en incorporar referencias a la norma foral; por otro, en introducir más supuestos de no aplicación del recargo de viviendas vacías. En la ordenanza había algunas pero no demasiadas y en la aplicación, no bien recogidas, traía problemas.

Orokorrean, hobarietan, eskaera-epea luzatu egin da, abenduak 1etik aurrera emango baita aukera. Familia ugarien hobarietan ere zuzenketa bat egin da euskarazko bertsioan.

En general, en las bonificaciones, se amplía el plazo de solicitud, ya que se permitirá a partir del 1 de diciembre. En las bonificaciones a las familias numerosas también se ha introducido una corrección en la versión en euskera.

la Ordenantza guztietan egongo den aldaketa, bestalde, NISAEren aipamena da.

La modificación que habrá en casi todas las ordenanzas es, por otra parte, una referencia a NISAE.



Ordiziako Udala

2022IOSB0009

Amaitzeko, energia berriztagarrien hobarian ere zehaztapenak jaso dira. *Finalmente, también se recogen determinaciones en la bonificación de energías renovables.*

Jarraian, Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren Ordenantza bozketapean jarri da. *A continuación se somete a votación la Ordenanza del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.*

Bozketa:

Aldekoak: 14 (EUSKAL HERRIA BILDU (E.H. Bildu) 6, EAJ/PNV 5, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Alkate Jaunak Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren Ordenantzaren aldaketari dagozkion puntu guztiak aho batez onartutzat jo ditu.

Jarraian, Alkate Jaunak hitza eman dio Podemos-eko ordezkariari bere proposamena aurkeztu dezan etxebizitza hutsen errekaruari dagokionez. *A continuación, el Sr. Alcalde cede la palabra al representante de Podemos para que presente su propuesta en relación con el recargo de viviendas vacías.*

Ordenantza fiskalak aldatzeko proposamena **Propuesta para la modificación de las Ordenanzas fiscales**


1. ordenantza.- OHZ

Ordenanza número 1.- IBI

Ordenantzaren 3. artikuluko 4. puntua aldatzea. *Modificación del artículo 3 punto 4 de la Ordenanza.*

Paragrafo bat gehitzea, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 FORU ARAUAREN 14.5 artikulua araberak. *Añadir un párrafo de conformidad con el artículo 14.5 de la NORMA FORAL 12/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.*

“Errekargu hori % 150 handituko da edukitzaile handiek jabetzan dituzten etxebizitza hutsetan. Edukitzaile handitzat hartzen dira jabetzan 10 etxebizitza baino gehiago dituzten pertsona fisikoak eta 4 etxebizitza baino gehiagoren titular diren pertsona juridikoak.” Kontzeptu horrengatik biltzen diren zenbateko guztiak alokairurako laguntzen programako partidara bideratuko dira. *“este recargo se verá incrementado en un 150% en aquellas viviendas vacías propiedad de grandes tenedores. Se consideran grandes tenedores a las personas físicas que tengan más de 10 viviendas en propiedad y a las personas jurídicas titulares de más de 4 viviendas.” Las cantidades recaudadas por este concepto irán destinadas íntegramente a la partida del programa de ayudas al alquiler.*



Mila Sukia: aldaketa jabego handientzako da. Guk aztertuta araua agertzen da 150 arte igo daitekeela eta ondorioz, guk planteatzen duguna da pertsona fisikoen kasuan, 10 etxebizitza hutsik edukitzea, herrian bertan; eta pertsona juridikoen kasuan, lau etxebizitza baino gehiago dituztenei. Beste guztiak mantenduko lirateke %50ean. Honekin, kasu hauetan, ez dauka inongo zentzurik horrelako enpresa handiek etxebizitzak hutsik edukitzeak. Hori da planteatzen duguna.

Iñaki Dubreuil: gure proposamena definiziotik abiatzen da. Gustatuko litzaiguke definizioa indarreko araudira egokitzea. Orain, etxebizitza-eskubideari buruzko lege berriak eta aurreko legeak edukitzaile handi bat zer zen definitzen zuten, eta 10 etxebizitza baino gehiago zituzten pertsona fisiko edo juridikoetara mugatzen zen, baita lursailletara ere.

Mila Sukia: guk ulertzen dugu, nolnahi ere, aldaketa hori legalki posible balitz izango litzatekeela, eta hori ere ez dakit.

Alkate jauna: proposamena jaso zenetik aztertzen aritu gara bai diruzaintzatik eta idazkaritzatik. Lehen ere aipatu da foru arau bat dagoela errekaru hau arautzen duena eta erregulazio horren baitan, udalek alde batera edo bestera jo dezakete.

Lehenik eta behin, egia da, Foru Arauak modu singularrean hitz egiten duela errekaruari buruz. Kontsulta egin da foru aldundiko zerga departamentura eta euren adierazi digute beti euren interpretazioa errekaru bakarrarena izan dela eta gainera, sistema informatikoa ez dagoela prest errekaru horretan graduazio ezberdinak ezartzeko.

Mila Sukia: *El cambio es para las grandes posesiones. Si analizamos la norma aparece que puede elevarse hasta 150, por lo que lo que nosotros planteamos es que en el caso de las personas físicas, tengan 10 viviendas vacías en la misma localidad, y en el caso de las personas jurídicas, a las que tengan más de cuatro viviendas. Todos los demás se mantendrían al 50%. Con esto, en estos casos, no tiene ningún sentido que este tipo de grandes empresas tengan sus viviendas vacías. Eso es lo que planteamos.*


Iñaki Dubreuil: *nuestra propuesta parte de la definición en sí. Nos gustaría que la definición se ajustara a la normativa vigente. Ahora la nueva ley del derecho a la vivienda, y la ley anterior, definían lo que era un gran tenedor y se limitaba a las personas físicas o jurídicas que tenían más de 10 viviendas y también hacía referencia a los terrenos.*

Mila Sukia: *nosotros entendemos, en cualquier caso, que esa modificación sería si legalmente es posible, que tampoco lo sé.*

Señor alcalde: *desde la recepción de la propuesta hemos estado analizando tanto desde la tesorería como desde la secretaría. Ya se ha comentado anteriormente que existe una norma foral que regula este recargo y dentro de esa regulación, los ayuntamientos pueden acudir a un lado u otro.*

En primer lugar, es cierto que la Norma Foral habla de forma singular del recargo. Se ha consultado al Departamento de Tributos de la Diputación Foral y ellos nos han comunicado que su interpretación ha sido siempre de un solo recargo y que, además, el sistema informático no está dispuesto a implantar diferentes graduaciones en dicho recargo.

Idazkaritzatik ere aztertu da foru arau *Desde la Secretaría también se ha analizado*



Ordiziako Udala

2022IOSB0009

horrek esaten duena eta adierazi da, eta oker banago zuzendu, berez foru araua izanik, interpretatzen lehentasuna duena foru aldundia bera dela eta beraz, eurek interpretatzen badute soilik errekaratu bat ezarri dezakegula, zailtasunak daudela.

Egia da jabego horiek definitzerakoan, batetik, zailtasunak sortzen direla izan ere, katastrofik jasotzen dugun errolda eta hortik aztertzen da zein dauden hutsik. Guk jabego horiek soilik Ordizia barruan aztertu ditzakegu eta guk kasu bakarra izango genuke eta gainera, eraberritu edo berritzeko etxebizitza litzateke. Pertsona juridikoen kasuan, soilik batek gaindituko luke. Zentzu horretan, Iñaki Dubreuil ere aipatu du, eskaera bideratzea Etxebizitza Legeak ere definitzen duelako eta gutxienik eskatzea, esparrua Gipuzkoa izatea izan ere, herri txikietan gertatu daiteke langa ez gainditzea baina Gipuzkoa mailan bai.

Analogia bat eginda, gertatu zaigu antzeko zerbait guraso bakarreko familietan. Bere garaian onartu zen mozioa, eta kasu horietan ere, hobariak emateko foru arauak berariaz aurreikusi behar ditu. Beraz, egokia ikusten bada, Foru Aldundira egin daiteke eskaera.

Bittor Bolinaga: guk ere galdetu dugu eta zailtasunak egon daitezkeela bere aplikazioan adierazi digute. Ez dugu argi ikusten praktikan hau. Beraz, printzipioz abstenitu egingo gara.

Alkate Jauna: ikusita idazkaritzatik eta diruzaintzatik ez dela bideragarri ikusten, erabaki da ez bozkatzea.

Idazkaria: errekaratu etxebizitza hutsei lotuta dago, eta proposamen honetan ordea, errekaratu elementu subjektibo bati ezartzea planteatzen da, zeina ez

lo que dice esta norma foral y se ha señalado, y si me equivoco corrige, siendo la norma foral en sí misma, la que tiene prioridad interpretativa es la propia Diputación Foral y, por tanto, si ellos interpretan que sólo podemos establecer un recargo, hay dificultades.


Es cierto que a la hora de definir estas propiedades, por un lado, surgen dificultades, ya que recogemos el censo del catastro y de ahí se analiza cuáles están vacías. Nosotros sólo podemos estudiar esas propiedades dentro de Ordizia y nosotros sólo tendríamos un caso y, además, sería una vivienda para reformar o renovar. En el caso de las personas jurídicas, sólo una lo superaría. En este sentido, Iñaki Dubreuil también se ha referido a la posibilidad de que la Ley de Vivienda también defina la tramitación de la demanda y que se exija como mínimo que el ámbito sea Gipuzkoa, ya que en las localidades pequeñas puede ocurrir que no se supere la barrera pero a nivel de Gipuzkoa sí.

Haciendo una analogía, nos ha pasado algo parecido en las familias monoparentales. La moción fue aprobada en su día, y también en estos casos, la norma foral de bonificación debe preverlo expresamente. Por lo tanto, si se considera oportuno, se puede realizar la solicitud a la Diputación Foral.

Bittor Bolinaga: *Nosotros también hemos preguntado y nos han indicado que puede haber dificultades en su aplicación. No vemos claro esto en la práctica. Por tanto, en principio nos abstendremos.*

Señor Alcalde: *visto que desde la Secretaría y Tesorería no se ve viable, se acuerda no votar.*

Secretaria: *el recargo está ligado a las viviendas vacías, mientras que en esta propuesta se plantea la imposición del recargo a un elemento subjetivo que no está previsto en la norma foral, por lo que el*



Ordiziako Udala

2022IOSB0009

dagoen aurreikusita foru arauan eta ondorioz, udalak ez dauka gaitasunik hori aurreikusteko. Zergen alorrean, legerreserbaren baitan jarduten dugu eta ondorioz, erregelamendu bidez garatzeko ahalmena soilik daukagu.

Mila Sukia: ikusten bada juridikoki ez dela bideragarria guk erretiratu egingo dugu. Baina gustatuko litzaiguke Foru Aldundira eskaera egitea.

Iñaki Dubreuil: nik galdera bat daukat: zerga honen bidez jasotzen den dirua diru-sarreretako zein kapitulotara do?

Idazkaria: hirugarrenera.

Honela beraz, ez da bozkatu PODEMOS taldeak egindako proposamena.

Jarraian, Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergari dagokion Ordenantza aztertzeari ekin zaio.

Alkate Jauna: hemen ere, errolda ogasunetik jasotzen da eta zentzu honetan proposatzen diren zuzenketak batik bat, foru arauak dioenera egokitzeko egin dira. Era berean, kokapenari dagokion koefiziente bat ere txertatu da, lokalizazioari dagokiona.

Jarraian, Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren Ordenantza bozketapean jarri da.

Bozketa:

Aldekoak: 14 (EUSKAL HERRIA BILDU (E.H. Bildu) 6, EAJ/PNV 5, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Alkate Jaunak Jarduera Ekonomikoen gaineko zergaren Ordenantzaren aldaketari dagozkion puntu guztiak aho batez onartutzat jo ditu.

Jarraian, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen *A continuación se procede a examinar la*

ayuntamiento no tiene capacidad para preverlo. En materia tributaria, actuamos dentro de la reserva de ley y, en consecuencia, sólo tenemos capacidad de desarrollo reglamentario.

Mila Sukia: si se ve que no es viable jurídicamente nosotros lo retiraremos. Pero nos gustaría que se realizara la solicitud a la Diputación Foral.


Iñaki Dubreuil: yo tengo una pregunta: el dinero que se recauda con respecto a este impuesto a qué capítulo de ingresos va?

Secretaria: a la tercera.

Por lo tanto, no se ha votado la propuesta realizada por PODEMOS.

A continuación se procede al estudio de la Ordenanza del Impuesto de Actividades Económicas.

Sr. Alcalde: aquí también el Padrón se recibe de Hacienda y las enmiendas que se proponen en este sentido se han realizado sobre todo para adaptarlas a lo que dice la norma foral. Asimismo, se incluye un coeficiente de localización correspondiente a la ubicación.



Ordiziako Udala

2022IOSB0009

gaineko Zergari dagokion Ordenantza aztertzeari egin zaio.

Ordenanza del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.

Alkate Jauna: hemen planteatzen diren aldaketak Foru Arauari dagozkion erreferentziak dira, zehaztasunak handitzeko. Salbuespenetan, eskaera-epaiek aldatu dira eta era berean, NISAEren erreferentziak ere txertatu dira. Hobarrietan ere berdin. Familia-ugarien taulan zuzenketa txiki bat ere egin da.

Sr. Alcalde: las modificaciones que se plantean aquí son referente a la Norma Foral para aumentar los detalles. En las excepciones se han modificado los plazos de solicitud y se han incorporado referencias de NISAE. Lo mismo en las bonificaciones. También se ha realizado una pequeña corrección en el cuadro de familias numerosas.

Jarraian, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantzaren aldaketa bozketapean jarri da.

Bozketa:

Aldekoak: 14 (EUSKAL HERRIA BILDU (E.H. Bildu) 6, EAJ/PNV 5, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Alkate Jaunak Trakzio Mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren Ordenantzaren aldaketari dagozkion puntu guztiak aho batez onartutzat jo ditu.

Jarraian, Eraikuntza, Instalazio eta Obren Zerga arautzen duen Ordenantza aztertzeari ekin zaio.

Jarraian, Eraikuntza, Instalazio eta Obren Zerga arautzen duen Ordenantza aztertzeari ekin zaio.

Alkate Jauna: aldaketa bakarra proposatzen da. Txukunketa bat da. Irekieragatik, jardueragatik, hobariak daude, eta horiek sektore berrien eta dagoeneko dauden sektoreen artean banatzen ziren. Egia da aplikatzeko zailtasunak adierazi zirela diruzaintzatik, izan ere, ez dago inon zehaztuta zeintzuk diren sektore berri horiek eta zeintzuk ez. Egin dena izan da, irekiera berri guztiak berdin baloratu eta epigrafe bakarrean sartu.

Sr. Alcalde: Sólo se propone un cambio. Es un arreglo. Hay bonificaciones por apertura, por actividad, que se repartían entre los nuevos sectores y los ya existentes. Es cierto que se señalaron dificultades de aplicación desde la tesorería, ya que en ningún sitio está definido cuáles son estos nuevos sectores y cuáles no. Lo que se ha hecho ha sido valorar por igual todas las nuevas aperturas e incluirlas en un único epígrafe.

Jarraian, Eraikuntza, Instalazio eta Obren Zerga arautzen duen Ordenantzaren aldaketa bozketapean jarri da.



Bozketa:

Aldekoak: 14 (EUSKAL HERRIA BILDU (E.H. Bildu) 6, EAJ/PNV 5, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Alkate Jaunak Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergaren Ordenantzaren aldaketari dagozkion puntu guztiak aho batez onartutzat jo ditu.

Ondoren, PSOE alderdiaren proposamena aztertu da. *Posteriormente, se ha analizado la propuesta del PSOE.*

TALDE	SOZIALISTAREN	PROPUESTAS DEL GRUPO SOCIALISTA
PROPOSAMENAK	2023ko	A LAS ORDENANZAS FISCALES 2023
ORDENANTZA FISKALEI		

4. ORDENANTZA FISKALA: ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.	ORDENANZA FISCAL Nº 4: REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS.
--	--

IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK	IV. EXENCIONES, REDUCCIONES Y BONIFICACIONES
---	---

8. artikulua.-	<i>Artículo 8º.-</i>
-----------------------	----------------------


Interes berezi edo udal erabilerarako interesgarritzat jotzen diren eraikin, instalazio eta obrei zergaren kuotan %95eko hobaria emango zaie, beti ere izendapen hori arrazoitzeko behar adina ezaugarri sozial, kultural, historiko-artistiko eta enplegu-sustapenekoak baleude.	<i>Se establece una bonificación de hasta el 95% de la cuota, a favor de construcciones, instalaciones u obras que sean declaradas de especial interés o utilidad municipal por concurrir circunstancias sociales, culturales, histórico-artísticas o de fomento de empleo que justifiquen tal declaración.</i>
---	---

GEHITU: Adierazpen hori Udalbatzaren Osoko Bilkurari dagokio eta kideen gehiengo soilaren aldeko botoz erabakiko da, subjektu pasiboak alde zuzenetik eskatuta.	<i>AÑADIR: Corresponderá dicha declaración al Pleno de la Corporación y se acordará, previa solicitud del sujeto pasivo, por voto favorable de la mayoría simple de sus miembros.</i>
---	---

PARAGRAFOA GEHITU:	AÑADIR PÁRRAFO:
---------------------------	------------------------

Ehuneko 50eko hobaria ezartzen da	<i>Se establece una bonificación del 50 por</i>
-----------------------------------	---

Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus



Ordiziako Udala

2022IOSB0009

Eraikuntzaren Ikuskapen Teknikoaren (EIT) ondoriozko eraikinak egokitzeko segurtasun eta osasungarritasun jarduketak xede dituzten eraikuntza, instalazio edo obretarako. Hobaria aplikatuko zergadunaren familia-unitatearen diru-sarrerek indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldata (LGS) bider 1,5 egitearen emaitza gainditzen ez dutela egiaztatzen denean. Horretarako egiaztagiriak aurkeztu beharko dira.

ciento para las construcciones, instalaciones u obras, que tengan por objeto actuaciones de seguridad y salubridad para la adecuación de edificios, resultantes de la Inspección Técnica de la Edificación (ITE). La bonificación será aplicable cuando se acredite que los ingresos de la unidad familiar del contribuyente no superen la cantidad resultante de multiplicar el salario mínimo interprofesional (S.M.I.) vigente por 1,5. A tal fin, deberá aportarse la documentación justificativa.

PARAGRAFOA GEHITU:

AÑADIR PÁRRAFO:

1. Ehuneko 95erainoko hobaria ezartzen da ingurumen-interesa duten jarduketa hauetarako:

1. Se establece una bonificación de hasta el 95 por ciento para las siguientes actuaciones que poseen interés medioambiental:

a. Energia berriztagarriko iturrien bidez energia elektrikoa sortzeko instalazioak sartzeko: % 95eko hobaria.


a. La incorporación de instalaciones de generación de energía eléctrica mediante fuentes de energía renovable: bonificación del 95 por ciento.

b. Eraikinaren energia-eskaria inguratzaile termikoa hobetuz murrizteko obrak: jarduketa horien aurreko egoerarekin alderaz, berokuntzaren eta hozte-sistemaren egungo energia-eskari globalaren ehuneko 40 murriztu behar da gutxienez, ehuneko 70eko hobaria lortzeko eta ehuneko 60 edo gehiagoko murrizketa lortzeko, ehuneko 95eko hobaria lortzera iristeko.

b. Las obras de reducción de la demanda energética del edificio mediante la mejora de la envolvente térmica: se requiere una reducción respecto a la situación previa a dichas actuaciones de al menos el 40 por ciento de la demanda energética actual global de calefacción y refrigeración para alcanzar una bonificación del 70 por ciento y una reducción del 60 por ciento o más para alcanzar una bonificación del 95 por ciento.

c. Energia-efizientzia hobetzeko, berokuntzako, klimatizazioko, aireztapeneko eta ur bero sanitarioko instalazio termikoetan energia-iturri berriztagarriak ordeztzeko eta sartzeko obrak, bai eta instalazio termikoen banaketa, erregulazio, kontrol eta kudeaketa energetikorako azpisistemak instalatu edo hobetzekoak ere: % 95eko hobaria. Eraikinaren kalifikazio energetiko osoa hobetu behar da, eraikinaren hasierako kalifikazio energetikoari

c. Las obras de mejora en eficiencia energética, sustitución e incorporación de fuentes de energía renovable en instalaciones térmicas de calefacción, climatización, ventilación y agua caliente sanitaria, así como por instalación o mejora de subsistemas de distribución, regulación, control y gestión energética de las instalaciones térmicas: bonificación del 95 por ciento. Se requiere mejorar la calificación energética total del edificio en, al menos, una letra medida en la escala de



Ordiziako Udala

2022IOSB0009

dagokionez, gutxienez letra bat neurtuta karbono dioxidoaren emisioen eskalan (kg CO₂/m² urtean).

Ez zaie hobaririk emango lehendik dauden elementuak altxatzeko eta birjartzeko jarduketa osagarriei, baldin eta fatxadaren eta/edo estalkien gainean mantentzen badira, jarduketak gauzatzeko beharrezkoak izanik.

PARAGRAFOA GEHITU:

Ehuneko 5eko hobaria ezartzen da ingurumen-interesa duten jarduketa hauetarako:

Energia-eraginkortasuna hobetzen duten argiztapen-instalazioak. Instalazio elektrikoak eratorritako kontsumo elektrikoa gutxienez ehuneko 50ean murriztea eskatzen da.

Ez zaie hobaririk emango lehendik dauden elementuak altxatzeko eta birjartzeko jarduketa osagarriei, baldin eta fatxadaren eta/edo estalkien gainean mantentzen badira, jarduketak gauzatzeko beharrezkoak izanik.

Hobari hori xede horretara bideratutako eraikuntza, instalazio eta obrei dagokien kuota-zatiari aplikatuko zaio soilik.

Justifikazio berezia eskatzen duten hobaridun jarduketekin lortutako hobekuntzaren justifikazioa eraikinaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriaren bidez egingo da.

Jarduketan aurreko eta ondorengo egoeran eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriak Eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarritzko prozedura onartzen duen ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuaren eskakizunak beteko ditu.

emisiones de dióxido de carbono (kg CO₂/m² año), con respecto a la calificación energética inicial del edificio.

No serán objeto de bonificación aquellas actuaciones auxiliares de levantamiento y reposición de elementos existentes, que se mantienen, sobre fachada y/o cubiertas, que resultan necesarias para llevar a cabo las actuaciones.

AÑADIR PÁRRAFO:

Se establece una bonificación del 5 por ciento para las siguientes actuaciones que poseen interés medioambiental


Las instalaciones de iluminación que mejoren la eficiencia energética. Se requiere que el consumo eléctrico derivado de la instalación eléctrica se reduzca, al menos, en un 50 por ciento.

No serán objeto de bonificación aquellas actuaciones auxiliares de levantamiento y reposición de elementos existentes, que se mantienen, sobre fachada y/o cubiertas, que resultan necesarias para llevar a cabo estas actuaciones.

Esta bonificación alcanzará exclusivamente a la parte de cuota correspondiente a las construcciones, instalaciones y obras destinadas estrictamente a dicho fin.

La justificación de la mejora obtenida con las actuaciones bonificables que exigen una justificación especial se realizará mediante la aportación del certificado de eficiencia energética del edificio.

El certificado de eficiencia energética en la situación previa y posterior a las actuaciones cumplirá los requerimientos del Real Decreto 390/2021, de 1 de junio, por el que se aprueba el procedimiento básico para la certificación de la eficiencia energética



Ez da aurreikusitako hobaririk emango jarduera horiek nahitaezkoak badira arlo horretako araudi espezifikoaren arabera, araudi hori gainditzen duten jarduketei edo jarduketan zatietan dagokien kuotaren zatia baino ez zaio hobaria emango.

PARAGRAFOA GEHITU:

Ehuneko 95eko hobaria ezartzen da jabeen erkidegoek ibilgailu elektrikoak edo entxufagarriak kargatzeko sistemak aurrez instalatzeko egiten dituzten eraikuntza eta instalazioetarako.

Hobari hori ezin izango da aplikatu beharreko araudian eskatzen den jarduketa bat bada.

PARAGRAFOA GEHITU:

Ehuneko 95eko hobaria ezarri da jabeen erkidegoek amiantoa kentzeko egindako eraikuntza eta instalazioetarako.

Ez zaie hobaririk emango lehendik dauden elementuak altxatzeko eta birjartzeko jarduketa osagarriei, baldin eta jarduketa horiek fatxadaren eta/edo estalkien gainean egin behar badira.

Alkate Jauna: orain Iñakiri emango diot hitza. Berak, batik bat, zenbait hobari planteatzen ditu eta guk modu honetan sailkatu ditugu: Lehenengo proposamena, foru arauak literalki dioena txertatzea da. Bigarrenik, eraikuntza ikuskapen teknikoari lotutakoa da. Hirugarrenik, eraginkortasun energetikoari lotutako hobariak daude.

de los edificios.

No se concederán las bonificaciones previstas cuando estas actuaciones sean obligatorias a tenor de la normativa específica en la materia, bonificándose únicamente la parte de la cuota correspondiente a las actuaciones o parte de las mismas que exceda de dicha regulación.

AÑADIR PÁRRAFO:

Se establece una bonificación del 95 por ciento para las construcciones e instalaciones, realizadas por comunidades de propietarios para destinarlas a la preinstalación de sistemas de recarga de vehículos eléctricos o enchufables en los garajes comunitarios.


No procederá esta bonificación caso de ser una actuación exigida en la normativa de aplicación.

AÑADIR PÁRRAFO:

Se establece una bonificación del 95 por ciento para las construcciones e instalaciones, realizadas por comunidades de propietarios dirigidas a la retirada de amianto.

No serán objeto de bonificación aquellas actuaciones auxiliares de levantamiento y reposición de elementos existentes, que se mantienen, sobre fachada y/o cubiertas, que resultan necesarias para llevar a cabo estas actuaciones.

Sr. Alcalde: ahora le doy la palabra a Iñaki. Él, sobre todo, plantea una serie de bonificaciones que nosotros hemos clasificado de la siguiente manera: La primera propuesta es introducir lo que literalmente dice la norma foral. En segundo lugar, se refiere a la inspección técnica de la construcción. En tercer lugar, están las



bonificaciones ligadas a la eficiencia energética.

Iñaki Dubreuil: lehenengo proposamena Foru Arauak dioena txertatzea zen, eta gero beste hirurak zuzen taldekatu dituzue, Foru Arauarekin berdintzen baitira. Gero beste bi proposamen zeuden: bata hobari bati buruzkoa zen. Osoko Bilkura honetan aspaldi onartu zen ibilgailu elektrikoak edo hibridoak kargatzeko puntuak jarri ahal izateko laguntza-programak diseinatzea edo prestatzea. Proposamen honek horrelako proiektuak sustatu besterik ez du egiten. Beste hobari bat ere proposatu genuen amiantoa kentzeko instalazioetarako. Osoko Bilkura honetan mozio bat ere onartu zen aho batez, 2010ean edo 2011n, amiantoa zuten berrerabilpen eta birziklagarriari babes ekonomikoa emateko.

Iñaki Dubreuil: la primera propuesta era incorporar lo que dice la Norma Foral y luego las otras tres los habéis agrupado de manera correcta porque se igualan con la Norma Foral. Luego había otras dos propuestas: una era la referente a una bonificación. Hace tiempo se aprobó en este Pleno diseñar o preparar programas de ayudas para que se pudieran poner puntos de carga de vehículos eléctricos o híbridos. Esta propuesta no hace más que incentivar este tipo de proyectos. Y luego también planteábamos otra bonificación para instalaciones dirigidas a la retirada del amianto. Se aprobó también una moción en este Pleno en el año 2010 o 2011 por unanimidad con respecto a dar apoyo económico a la reutilización y reciclable que contuvieran amianto.

Alkate jauna: Iñakik esan duen bezala, lehenengo proposamena Foru Arauak dioena txertatzea litzateke, izan ere, ulertzen bada instalazioak interes berezikoak direla udalarentzat hori Osoko Bilkurak aitortu behar izaten du. Gure Ordenantza fiskalean, azken zehaztapen hori jaso gabe zegoen baina dena den, beti horrela jardun izan da.

Sr. Alcalde: como ha dicho Iñaki, la primera propuesta sería incorporar lo que dice la Norma Foral, porque si se entiende que las instalaciones son de especial interés para el Ayuntamiento, eso lo tiene que reconocer el Pleno. En nuestra Ordenanza Fiscal, esta última determinación no estaba recogida, pero siempre se ha actuado así.

Ondoren planteatzen diren hobarietan badago bat Eraikuntzen Ikuskapen Teknikoari lotuta. Foru Araua aztertu da eta ez du inondik inora horrelakorik baimentzen, beraz, ezin da horrelakorik sartu.


En las bonificaciones que se plantean a continuación existe una vinculada a la Inspección Técnica de Construcciones. La Norma Foral ha sido analizada y en ningún caso lo permite, por lo que no cabe su inclusión.

Egia da, era berean, hemen zergaren hobaria planteatzen ari garela, baina Errehabilitaziorako udal dirulaguntzak badaude.

